

3-BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua jendeari helarazteko eta hauek ezagutarazteko, publizitateaz baliatuko gara, bai interneten, bai sare sozialetan baita telebistan ere, gainera denda fisiko zen web orri bat zabalduko dugu produktuak ezagutu ditzan jendeak eta saltzeko. Publizitatea dela eta, gure produktua sare sozialetan aurkeztuko dugu, instagramen adibidez. Gure enpresan nahiko irabazi ditugunean telebistan iragartzea egokia iruditzen zaigu, baina esan bezala, nahiko irabazi ditugunean. Gainera, eraikuntza ekologikoaren inguruko informazioa ematen dute aldizkariak ere baliabide interesgarria iruditu zaigu.

Gure produktua erosten dutenek produktua eskuratzeko bi modu ezberdin izango dituzte:

1) Denda fisikoan erosiz: Bezeroek gure produktua erosi nahi izanez gero, gure dendara etortzeko aukera izango dute, gurera etorri eta guk haiei eman diezazkiegun baliabideak aurkeztuz. Ondoren, gure instalatzaileak joango lirake haien etxera eta bertan instalatuko lukete.

2) Web orri bidez erosi eta etxerako zerbitzua: Gure bezeroak gure denda fisikoa ez dagoen gune batean biziz gero web orritik erosteko aukera izango dute, bertan gure eskaintza guztiak deskribatuko ditugu banan bana eta erraza izango zaie haien gustukoa den produktua erostea, *paypal* edo kreditu txartelaren bidez ordaindu, haien helbidea jarri eta gure banatzaileek helaraziko lieke erositako produktua eta ondoren gure instalatzaileak joango lirake gure produktua instalatzera.

